

Giza eskubideen eta migrazioen XV. astea / XV semana de DDHH y migraciones

PAPELES DENONTZAT :: 09/12/2019

En el 71º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, el balance es poco esperanzador.

GIZA ESKUBIDEEN eta MIGRAZIOEN XV. ASTEA

ESKUBIDE GUZTIAK PERTSONA GUZTIENTZAT

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 71. urteurrena abenduaren 10ean izanen da. Zoritxarrez, egiten dugun balantzea ez da batere itxaropentsua.

Kontinente ezberdinetan **herri askok pairatzen dituzten gerrak**, munduan ematen den ezberdintasun ekonomiko eta soziala, populazioaren %1ak beste guztiok baino diru gehiago metatzen duela eta, klima aldaketa, diktadurak eta askatasun falta direla eta, familia asko eta asko beste leku seguru eta egonkorragoaren bila abiatzen dira. ACNUR erakundeak gogorazten digu 70,8 milioitik gora bizi direla beren etxeetatik kanpo aurreko arazoak direla eta, iaz baino 2,3 milioi gehiago. Beren ihesaldian, besteak beste, hesiak, harresiak, kontzentrazio eremuak, muga itxiak, hotza, gosea, osasun beharrak eta xenofobia topatzen dituzte, eta askotan, zoritxarrez, heriotza ere bai.

Andaluziako Giza Eskubideen aldeko elkarteak dioenez, gutxienez 1.064 pertsona hil dira edo desagertu Espainiako Hegoaldeko mugetan azken urtean, 2018an, aurreko urteko baino lau aldiz gehiago.

50 Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) Europar Batasuneko Estatuak salatu dituzte, Mediterraneo itsasoa itsas hilerria bihurtzeagatik. Italiak eta Libiak sinatu duten akordioa 2 urte pasa ondoren, zeinengatik Libiako Kostazainek iheslariei bere itsasontziak nazioarteko uretara iritsi baino lehen bihurtzeko agintaldia duten. Ondorioak suntsitzaileak dira, 5.300 pertsona hil dira Mediterraneo itsasoan.

Europar Batasunak eta bere estatu-kideek onartu behar dute ukaezina den erantzukizun bat dutela. Pertsona migratzaile eta errefuxiatu hauen sufrimendu eta heriotzen aurrean ezin dugu beste aldera begiratu, eta indarrean dauden asilo eta migrazio politikak aldatu behar ditugu.

Aurtengo ekainean abokatu europarreko talde batek txosten bat aurkeztu du Nazioarteko Gorte Penalean iker dadila Europar Batasuneko eta azken 5 urteetan zeharreko zauritutako humanitateko bere Estatu Kideen migrazio-politika.

Europar Batasunak gatazka hauen jatorrian eta garapenean duen erantzukizun politikoa bere gain hartu behar du.

Migratzea ez da delitua, baina bai migrazioa eragiten duten kausetako asko. Delitua da

Hegoaldeko herrialdeak arpilatzea, haien aberastasunak espoliatzea, multinazionalei haien baliabideak garbitzeko bidea urratzea... eta gero gure mugak ixtea.

Delitua da hesiak eraikitzea eta ezikusiarrena egitea, milaka pertsonak haien herrialdeetatik ihes egin izanaren arrazoia gure errealitatearekin, gure sistema kapitalista eta patriarkalarekin zerikusirik ez balu bezala. Delitua da bonbardatzea, eta gero, gerratik ihesi Europara etor daitezkeen pertsonen kupoaz ezartzea.

Estatuko atzerritarren legeak, pertsonak beren jatorria dela eta, besteak beste, kategoria ezberdinetan sailkatzen eta diskriminatzen jarraitzen du, ezinezko bisak ematen, lan egiteko lehentasun nazionala sustatzen, osasun eskubidea murrizten eta familia berriro elkartzea oztopatzen. Pertsona hauen eskubideak mugatzen dituzten beste urraketa batzuk ere aipatuko ditugu:

Kode penalaren erreformak, bere 89. artikuluan, biztanle atzerritarren diskriminazioa ahalbidetzen du. Erreforma honen ondorioak oso gogorrak dira, delitu larriak ez diren batzuei, mehatxuak, kalumniak edo alkoholemia esaterako, urte bat baino gehiagoko kartzela-zigorra jar daitekeelako.

Beroan hartutako itzulketak, hau da, Ceuta edo Melillako hesiak gurutzatu dituzten pertsonak, lurralde espainolean atxilotuak direnean, hesiaren beste aldera bueltatzea legez kontrakoa da eta gainera ilegala. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia zigortu egin du 2017ko urrian etorkinak "beroan" itzultzeagatik.

Tarajal-eko hondartzan 15 pertsonen heriotza, zor zitzaien laguntza ukatzeaz gain Guardia Zibilak hondartzatik tirokatzen zituenean.

"CIE"en existentzia, pertsonen atzerritarren zentroak, zuzenbidezko estatuaren benetako zuloak dira, bertan Giza Eskubideen urraketa masiboa ematen baita. Bertan askatasuna 60 egunetara arte kentzen diete inongo deliturik egin ez duten pertsonen egozpena errazteko. Jada Gobernuak erreformak iragarri ditu, baina erantzun bakarra bere behin betiko itxieragatik pasatzen dela dakigu.

Osasun eskubidea. Osasuna eskubide unibertsala da. Nahiz eta haiek bertako bezala baimenduta ez egon, uztailaren 20ko 7/2018 Errege-Dekretu-Legeak eskubide hau pertsona guztientzat aitortzen du. Baina bere eraginkortasuna oraingoz ondorioztatu ez dituzten baldintzak beteak izateko baldintzatuta geratzen da, eta Nafarroan 4.000 pertsona itxaronaldi egoeran daude.

Bozkatzeko eskubidea. Nafarroan adin nagusiko 45.000 pertsonak Estatuko eta Nafarroako hauteskundeetan bozka emateko eta hautatua izateko baztertuak daude, ez bada estatuen arteko elkarrekotasuna. Udal-hauteskundeetan hemeretzi mila etorkinek ezin dute parte hartu. Hiritartasun eskubidea eta bizilekuarena parekatzeko eskatzen dugu. Hemen bizi, hemen bozkatu.

Oinarrizko errenta, egoera administratiboa irregularra duten 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago duten atzerritarrei ukatzen zaie, eta gainera 2 urte erroldatuak egotea eskatzen zaie.

Gorroto delituak. Raxen, Intolerantziaren kontrako Mugimenduaren informean jasotako datuen arabera, joan zen urtean Nafarroan gertatutako 19 delituetatik gehienak arrazakeriak eta xenofobiak eragindakoak dira.

Etxebizitza. Pisua alokatzeko muturreko zailtasuna izatea pobre edota kolore ezberdina izateagatik onartezina da.

Azken finean, pertsona guztien giza eskubideak babestearen beharra, jatorria, migratzailea den ala ez kontuan hartu gabe, ez da bakarrik eskakizun juridikoa, baizik eta gure gizartearen listoi etikoa ez dugula jaisten bermea, eta demokraziaren baloreetan ez dugula amore ematen.

Aste honen antolakuntzarekin honakoa lortu nahi dugu: mugek kultura eta gizarte-bazterkeria giza eskubideen kulturaren gainetik ez egotea. Planteamendu honekin aurkeztu nahi dugu Migrazioen eta Giza Eskubideen XV. Astea, antzerkiak, dokumentalak, hitzaldiak eta erakusketak eskainiz. Elkar hobeto ulertzeko eta munduko leku ezberdineko pertsonen integrazioa bideratzeko balioko duen asmoa dugu.

ESKUBIDE GUZTIAK PERTSONA GUZTIENTZAT

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an.

Leer programa completo [PDF]

XV SEMANA DE DDHH Y MIGRACIONES

TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS

En el 71º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, el balance es poco esperanzador.

Las múltiples violencias, sufridas por los pueblos en los diversos continentes, la brutal desigualdad económica, reflejada en el vergonzoso porcentaje del 1% de la población que acumula más dinero que todo el resto del planeta, el cambio climático, los regímenes dictatoriales y falta de libertades, la precariedad y la falta de oportunidades e igualdad de derechos, provocan, el éxodo de personas a la búsqueda de un lugar más estable, más seguro. ACNUR, Alto Comisionado de Naciones Unidas para Refugiados, nos recuerda que más de 70,8 millones, 2,3 millones de personas más que el pasado año, viven fuera de sus hogares por alguno de los motivos enumerados. En su huida, se encuentran, vallas, muros, campos de concentración, frío, hambre, desprotección sanitaria, invisibilidad y en muchos casos la muerte.

Al menos, 1064 personas han muerto o desaparecido en la Frontera sur europea durante 2018, una cifra que supone cuatro veces más que el año anterior, ha alertado la Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía.

En la **Unión Europea, donde** más de **50** organizaciones, han denunciado a los estados de

la UE, de hacer del Mediterráneo” un cementerio marino” y dos años después del acuerdo entre Italia y Libia, bendecido por la UE por el cual los guarda costas de Libia, tienen el mandato de retornar a refugiados antes de que sus barcos lleguen a aguas internacionales. Sus consecuencias son demoledoras ,5.300 personas han muerto desde entonces en el Mediterráneo.

En junio del presente año un grupo de abogados europeos ha presentado un informe para que en la Corte Penal Internacional (CPI) se investigue la política migratoria de la Unión Europea y de sus estados miembros por crímenes de lesa humanidad durante los últimos cinco años.

Migrar no es un delito. Delito son muchas de las causas que originan la migración. Delito es saquear a los países del Sur, expoliar sus riquezas, allanar el camino para que acaben con sus recursos... y luego cerrar nuestras fronteras.

Delito es construir muros y mirar para otro lado, como si el motivo de que miles de personas huyan de sus países no tuviera nada que ver con nuestra realidad, con nuestro sistema.

Delito es bombardear y luego imponer cupos de personas que puedan venir a Europa huyendo de la guerra.

En el estado Español la Ley de extranjería sigue siendo la máxima expresión de Racismo Institucional, directamente en contra la declaración Universal de los Derechos Humanos, generando diferentes categorías de ciudadanía según el origen, obstaculizando la entrada a Europa, mediante la imposición de visados imposibles, como parte de su doctrina migratoria: el control, cierre y externalización de fronteras.

Con la Reforma del Código penal, donde en su artículo 89, se discrimina a la población extranjera, y las consecuencias de esta reforma son de un efecto extremadamente duro, pues las penas de prisión de más de un año, condenan a la expulsión del estado, se pueden imponer por delitos no especialmente graves como amenazas, calumnias o alcoholemia.

Las devoluciones en caliente (Personas que han cruzado las vallas De Ceuta o Melilla, son detenidas en territorio español y devueltas al otro lado de la valla) su devolución es ilegítima y además es ilegal. El tribunal Europeo de los Derechos Humanos ha condenado a España (octubre 2017) por la devolución en caliente.

La existencia de los CIEs, Centros de Internamiento de personas extranjeras, en los que se priva de libertad hasta 60 días para supuestamente facilitar la expulsión de personas, que no han cometido ningún delito, se encuentran en situación irregular, son en la práctica agujeros negros del estado de derecho que acumulan denuncias por violaciones de derechos y falta de condiciones de dignidad. El gobierno ya ha anunciado reformas, pero sabemos que la única respuesta, pasa por su cierre definitivo.

La sanidad, si bien el Real Decreto- Ley 7/2018, de 20 de julio, se reconoce este derecho a todas las personas, aunque no estén autorizadas como residentes, su efectividad queda condicionada al cumplimiento de requisitos que de momento no han concluido y cuatro mil personas en Navarra, están en situación de espera.

El derecho al voto, en Navarra cerca de cuarenta y cinco mil, personas mayores de 18 años están excluidas del derecho al voto, activo y pasivo, a las elecciones del Estado y Autonómicas y unas diez y nueve mil a las municipales, abogamos por el derecho integral de una ciudadanía, en el lugar donde se reside. Aquí vivo, aquí voto. Son personas que se ven directamente afectadas por decisiones políticas en las que ellas no han tenido opción de participar.

Los delitos de odio, denunciados, 19, según los datos del informe Raxen, Movimiento contra la Intolerancia, que trascendieron en Navarra, durante el pasado año, estuvieron motivados por el racismo/ o xenofobia.

La vivienda, la extrema dificultad para alquilar piso o habitación, por no contar con ingresos suficientes o ser racializada/o es inadmisibile.

Discrimina, a los jóvenes extranjeros mayores de 18 años y menores de 25 pues no pueden estar inscritos en la oficina de empleo, por estar en situación administrativa irregular, y en consecuencia no tienen derecho a la obtención de la Renta Garantizada.

La necesidad de defender los Derechos Humanos de todas las personas, con independencia de su origen, de su condición de migrante o no, no sólo es una exigencia jurídica, sino también garantía de que no bajamos el listón ético de nuestra sociedad y de que no claudicamos en nuestros valores democráticos.

Con la organización de esta XV Semana pretendemos contribuir a que la cultura de la frontera y la exclusión no se impongan a la cultura de los derechos humanos. Con este planteamiento la abordamos, mediante, cine, documentales, conferencias, exposiciones teatro.

“TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS”

Pamplona, a 9 de diciembre de 2019

Antolatzen dute eta sostengatzen dute/Organizan y apoyan:

: AMNISTÍA INTERNACIONAL; SOS RACISMO NAFARROA; IRUÑEA CIUDAD DE ACOGIDA, FUNDACIÓN IPES; MEDICOS DEL MUNDO NAVARRA; OXFAM INTERMON. PAPELES Y DERECHOS DENONTZAT;

COLABORA, TRAPALAN, GRUPO DE TEATRO.

[Leer programa completo \[PDF\]](#)

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/giza-eskubideen-eta-migrazioen-xv